| | | |
|---|---|---|
| **JAUN/ANDRE HORI:** | | **EXCMO\A. SR.\A:** |
| Lehendakariak emandako jarraibideen arabera, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.g) eta 20.1 artikuluekin bat etorriz, Gasteizen, Lehendakaritzako egoitzan, **2024ko MAIATZAREN 14an,** 10:00etan, egingo den bilerarako deia egiten zaizu. Honako hau izango da | | De conformidad con las instrucciones recibidas del Lehendakari, al amparo de los artículos 8.g) y 20.1 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, convoco a V.E. a la reunión que se celebrará en Vitoria-Gasteiz, en la sede de Lehendakaritza, a las 10:00 horas del día **14 DE MAYO DE 2024**, con el siguiente |
| GAI-ZERRENDA | | ORDEN DEL DÍA |
| Aurreko bileraren akta irakurri, eta, hala badagokio, onartzea. | 1 | Lectura y, en su caso, aprobación del Acta de la sesión anterior. |
| SEGURTASUN SAILA | | DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD |
| Erabaki-proposamena, Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeko kideen ordainsariak onartzekoa, 2024ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako. | 2 | Propuesta de Acuerdo por el que se aprueban las retribuciones de las personas miembros de la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma de Euskadi, para las elecciones al Parlamento Vasco de 2024. |
| GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA | | DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO |

| | | |
|---|---|---|
| Erabaki-proposamena, onarpena ematekoa Itelazpi SAri egindako mandatuari, telekomunikazio-sarearen euste- eta mantentze-zerbitzurako, meteorologia-sarerako komunikazio-zerbitzurako eta Euskal Autonomia Erkidegoko komunikazio-zentroetako aterpe-zerbitzurako, 2024. ekitaldian. | 3 | Propuesta de Acuerdo por el que se aprueba el encargo a Itelazpi, S.A., para el servicio de soporte y mantenimiento de la red de telecomunicaciones, el servicio de comunicación para la red de meteorología y el servicio de albergue en los centros de comunicación de la Comunidad Autónoma del País Vasco para el ejercicio 2024. |
| Eduki ekonomikoa duten agindu eta ebazpenen zerrenda, Gobernu Kontseilua jakinaren gainean egon dadin. | 4 | Relación de órdenes y resoluciones con contenido económico para conocimiento del Consejo de Gobierno. |
| EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA | | DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE |
| Erabaki-proposamena, baimena ematekoa Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearekin hitzarmen bat izenpetzeko, Ikertalent Programako laguntzak kudeatzeko (2024ko deialdia) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak programako ikertzaile kontratatuak hauta ditzan gomendioa egiteko. | 5 | Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un Convenio de colaboración con la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, para la gestión de las ayudas del Programa Ikertalent, convocatoria 2024, y de encomienda para que la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi seleccione al personal investigador contratado del programa. |
| Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa zuzenbide pribatuko hainbat erakunderekin sinatu beharreko lankidetza-hitzarmenaren eredua, 2024ko deialdiko laguntzak kudeatzeko, martxoaren 23ko 115/2021 Dekretuak arautuak (Ikertalent programa). | 6 | Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del modelo de Convenio de colaboración a suscribir con varias entidades de derecho privado, para la gestión de las ayudas de la convocatoria 2024, reguladas por el Decreto 115/2021, de 23 de marzo (Programa Ikertalent). |

| | | |
|---|---|---|
| Erabaki-proposamena, Teknologiako, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordeari baimena ematekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak Data Center Euskadi, SL sozietatean dituen partaidetzen ordezkari gisa, sozietate horretan hasitako salerosketa-prozesuan lehentasunezko harpidetza-eskubideari uko egitearekin ados dagoela adierazteko. | 7 | Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza a la Viceconsejera de Tecnología, Innovación y Transformación Digital, en representación de las participaciones de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi en Data Center Euskadi, S.L., para manifestar su conformidad a la renuncia a su derecho de suscripción preferente en el proceso de compraventa iniciado en dicha sociedad. |
| EKONOMIA ETA OGASUN SAILA | | DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA |
| Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2024rako Aurrekontuan kredituak txertatzeari buruzkoa, irailaren 26ko 2808/1980 Errege Dekretuaren bidez irakaskuntzaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako eginkizun eta zerbitzuak gehitzearen ondorioz (atzerriko goi-mailako hezkuntza-sistemen esparruan lortutako tituluen homologazioa eta baliokidetasun-adierazpena). | 8 | Proyecto de Decreto sobre incorporación de créditos en el Presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi para 2024, en virtud de la ampliación de funciones y servicios traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco por el Real Decreto 2808/1980, de 26 de septiembre, en materia de enseñanza (homologación y declaración de equivalencia de títulos obtenidos en el marco de sistemas de educación superior extranjeros). |
| Erabaki-proposamena, kreditu globala diruzaintzako gerakinen kontura zabaltzekoa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak 2024ko ekitaldian dituen kreditu beharrizanei erantzuteko, "Euskal Autonomia Erkidegoko industria-sektoreko enpresa txiki eta ertainetan eta handietan energia-eraginkortasuneko jarduerak egiteko laguntza-programa" finantzatzeko, 51.836.731,07 euroko zenbatekoarekin. | 9 | Propuesta de Acuerdo de ampliación de Crédito Global con cargo a Remanentes de Tesorería, para atender las necesidades crediticias del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente en el ejercicio 2024, para financiar el "Programa de ayudas para actuaciones de eficiencia energética en PYMEs y grandes empresas del sector industrial en la Comunidad Autónoma de Euskadi", por importe de 51.836.731,07 euros. |

10

Erabaki-proposamena, baimena ematekoa ordainketa-kredituak txertatzeari 5415-Transformazio Digitala eta Ekintzailetza Berritzailea programan, 1.550.000,00 euroko zenbatekoarekin, eta 4513-Kultura-sustapena programan, 268.193,71 euroko zenbatekoarekin (Euskal Autonomia Erkidegoko 2024ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorretakoak), Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren jarduerak finantzatzeko, hurrenez hurren.

Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la incorporación de créditos de pago en el Programa 5415-Transformación Digital y Emprendimiento Innovador, por importe de 1.550.000,00 euros y en el Programa 4513-Promoción de la Cultura, por importe de 268.193,71 euros de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2024, con destino a financiar actuaciones del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente y del Departamento de Cultura y Política Lingüística, respectivamente.

## HEZKUNTZA SAILA

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

11

Erabaki-proposamena, baimena ematekoa 5.000.000 eurotik gorako gastu- handitzeari, hezkuntza-administrazioaren menpeko ikastetxeak dituzten udal jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuak finantzatzeko laguntzetarako (Udalaguntza-2023).

Propuesta de Acuerdo de autorización de la ampliación del gasto superior a 5.000.000 de euros, en concepto de ayudas a la financiación de los gastos destinados a la ejecución de obras en edificios de propiedad municipal en los que funcionan centros docentes dependientes de la administración educativa (Udalaguntza-2023).

12

Erabaki-proposamena, baimena ematekoa 5.000.000 eurotik gorako gastuari, doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programako laguntza berrien eta berrituen 2024-2025 ikasturterako deialdia finantzatzeko.

Propuesta de Acuerdo de autorización de un gasto superior a 5.000.000 de euros, para la financiación de la convocatoria de las ayudas nuevas y renovaciones para el Programa Predoctoral de Formación de Personal Investigador no Doctor correspondiente al curso 2024-2025.

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

Dekretu-proiektua, zeinaren bidez premiazko deklaratzen baita Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak honako eskubide eta ondasun hauek okupatzea, nahitaez desjabetzeko: Ajangizko udalerrian, Ajangiz zundaketa energizatzea eta egokitzea proiektua gauzatzeko behar diren ondasunak eta eskubideak.

13

Proyecto de Decreto por el que se declara de urgencia la ocupación por el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, a efectos de expropiación forzosa, de los bienes y derechos afectados por el Proyecto de Energización y acondicionamiento del sondeo Ajangiz, en el municipio de Ajangiz.

Dekretu-proiektua, zeinaren bidez premiazko deklaratzen baita Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak honako eskubide eta ondasun hauek okupatzea, nahitaez desjabetzeko: Abanto-Zierbena eta Muskiz udalerrietan lehen mailako saneamendu-sarea (Meatze-kolektorea. Putxeta-Muskiz tartea. 3. fasea) berritzeko proiektua gauzatzeko behar diren ondasunak eta eskubideak.

14

Proyecto de Decreto por el que se declara de urgencia la ocupación por el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, a efectos de expropiación forzosa, de los bienes y derechos afectados por el Proyecto de renovación de la red primaria de saneamiento. Colector minero. Tramo Putxeta-Muskiz. Fase 3, en los municipios de Abanto-Zierbena y Muskiz.

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuarekin sinatu beharreko lankidetza-hitzarmena, Euskadiko Osasun Liburutegi Birtualari buruzkoa.

15

Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del Convenio de colaboración a suscribir con Osakidetza-Servicio vasco de salud, sobre la Biblioteca Virtual de Salud de Euskadi.

| | | |
|---|---|---|
| Erabaki proposamena, aintzat hartzekoa Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialekin sinatu beharreko lankidetza-hitzarmena, Euskal Autonomia Erkidegoan farmazia jagoleen sare bat ezarri eta garatzeko. | 16 | Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del Convenio de colaboración a suscribir con los Colegios Oficiales de Farmacéuticos/as de Alava, Bizkaia y Gipuzkoa para la implantación y desarrollo de una red de farmacias centinela en la Comunidad Autónoma de Euskadi. |
| Erabaki proposamena, aintzat hartzekoa Osakidetzarekin eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargo Ofizialekin sinatu beharreko lankidetza-hitzarmena, farmazia-bulegoetatik bultzatzeko asma edo BGBKrako inhalagailuekiko atxikidura hobetzea eta inhalagailu horien erabilera egokia. | 17 | Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del Convenio de colaboración a suscribir con Osakidetza y los Colegios Oficiales de Farmacéuticos de Alava, Bizkaia y Gipuzkoa, para la mejora de la adherencia y uso adecuado de inhaladores en asma o EPOC desde las oficinas de farmacia. |
| Erabaki-proposamena, Osasun Sistemen Ikerketa Institutua (Biosistemak) izeneko irabazi-asmorik gabeko elkartea salbuestekoa, 2024ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorretan esleitutako dirulaguntza izendun bat jasotzeko berme erreala eratu beharretik. | 18 | Propuesta de Acuerdo de exoneración a la Asociación sin ánimo de lucro Instituto de Investigación en Sistemas de Salud (Biosistemak), de la necesidad de constituir garantía real para la percepción de una subvención nominativamente asignada en los Presupuestos Generales del ejercicio 2024. |
| Erabaki-proposamena, Biogipuzkoa Osasun Ikerketa Institutua izeneko irabazi-asmorik gabeko elkartea salbuestekoa 2024ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorretan esleitutako dirulaguntza izendun bat jasotzeko berme erreala eratu beharretik. | 19 | Propuesta de Acuerdo de exoneración a la Asociación sin ánimo de lucro Instituto de Investigación Sanitaria Biogipuzkoa, de la necesidad de constituir garantía real para la percepción de una subvención nominativamente asignada en los Presupuestos Generales del ejercicio 2024. |

Erabaki-proposamena, Biobizkaia Osasun Ikerketa Institutua izeneko irabazi-asmorik gabeko elkartea salbuestekoa 2024ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorretan esleitutako dirulaguntza izendun bat jasotzeko berme erreala eratu beharretik.

20

Propuesta de Acuerdo de exoneración a la Asociación sin ánimo de lucro Instituto de Investigación Sanitaria Biobizkaia, de la necesidad de constituir garantía real para la percepción de una subvención nominativamente asignada en los Presupuestos Generales del ejercicio 2024.

Erabaki-proposamena, Bioaraba Osasun Ikerketa Institutua izeneko irabazi-asmorik gabeko elkartea salbuestekoa 2024ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorretan esleitutako dirulaguntza izendun bat jasotzeko berme erreala eratu beharretik.

21

Propuesta de Acuerdo de exoneración a la Asociación sin ánimo de lucro Instituto de Investigación Sanitaria Bioaraba, de la necesidad de constituir garantía real para la percepción de una subvención nominativamente asignada en los Presupuestos Generales del ejercicio 2024.

## KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Erabaki-proposamena, baimena ematekoa Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetza-hitzarmen bat izenpetzeko, Unibertsitateko Liburutegiak Euskadiko Liburutegien Bilgunean izango duen parte-hartzearen baldintzak ezartzeko.

22

Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un Convenio de colaboración con la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, para establecer los términos de la participación de la Biblioteca de la Universidad en el Catálogo Colectivo de Euskadi-Euskadiren Liburutegien Bilgunea.

## IZENDAPENAK ETA KARGU-KENTZEAK

## NOMBRAMIENTOS Y CESES

## LEGEBILTZAR-EKIMENAK

## INICIATIVAS PARLAMENTARIAS

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 9a.

En Vitoria-Gasteiz, 9 de mayo de 2024.

**IZPTA./FDO.: GARAMENDI LANDA, OLATZ.**
**GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURU ETA JAURLARITZAREN IDAZKARIA**
**CONSEJERA DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO Y SECRETARIA DEL GOBIERNO**